

## Alarde Antifaxista 2020: Batallones recorren por segundo año las calles de Bilbao

---

ECUADOR ETXEA :: 12/10/2020

Una iniciativa que tiene como objetivo recordar que continúa siendo un tema actual, con lo que aún nace la necesidad de unificar: “En esta lucha somos uno”.

Una iniciativa que tiene como objetivo recordar que continúa siendo un tema actual, con lo que aún nace la necesidad de unificar: “En esta lucha somos uno”.

**Comunicado:** Ha pasado un año. Sin darnos cuenta, a toda velocidad. Un año desde que hicimos realidad con firmeza, ganas e ilusión en las calles de Bilbo un sueño que pudo no haber sido más que una simple ocurrencia. Un año desde que empezásemos a darle forma al sueño y creásemos, estructurásemos y llevásemos a cabo la iniciativa popular Alarde Antifaxista y nos sintiésemos tan orgullos@s y content@s de haber conseguido, desde nuestra humildad, reflejar sobre la rutina gris un nuevo rayo de luz lleno de futuro y esperanza.

Ha pasado un año. En el Alarde del año pasado, junto a demostrar voluntad y ganas para la unidad y desarrollo de esta iniciativa concreta, definimos la lectura que propone esta iniciativa antifascista así como sus señas de identidad. Nuestra iniciativa se enmarca en la Lucha Antifascista que tiene como eje la Lucha de Clases y es por ello que denunciemos las diversas opresiones, exterminio y destrucción generados por el capitalismo. La nuestra es una iniciativa que parte de la Memoria Histórica viva, que reivindica y saca a la calle el legado de todos y todas los luchadores antifascistas que nos han precedido porque, junto a ello, sentimos la necesidad de demostrar que el sentido, los objetivos y la dignidad de la lucha emprendida por ellos y ellas gozan de total actualidad. Es una iniciativa que tiene la unidad como eje y objetivo, ya que somos conscientes de que el fortalecimiento del antifascismo, hacer frente y dar kaña a los fascistas, es responsabilidad de todos y todas los que tenemos voluntad de seguir luchando, interiorizando que en esta lucha somos uno.

Ha pasado un año. Y no ha sido cualquiera. Además de reafirmarnos en todo lo que decíamos en el primer Alarde Antifaxista del pasado año, ahora nos toca hacer un breve repaso a lo que nos ha dejado el año. Denunciábamos la brutalidad imperialista y por un año más, más que mantenerse, ha ido creciendo a la vista de todos. Denunciábamos los nuevos límites impuestos por los estados burgueses en el ámbito de los derechos y libertades políticas y democráticas, y un año después nos preguntamos a ver dónde han quedado nuestros derechos. Denunciábamos el imparable e ilimitado empeoramiento de las condiciones de trabajo y la explotación y en este último año todos y todas los obreros que para sacar nuestra vida adelante estamos sometidos a las leyes de la esclavitud asalariada y del terrorismo capitalista en el mercado laboral, sabemos adónde nos están llevando. Junto a muchas otras, también denunciábamos, por citar algunas, la opresión nacional que sufre nuestro pueblo, la situación y condiciones de vida de presos y presas políticas y sociales o la cruda y vergonzosa situación que sufren los migrantes de todas las partes del mundo que el Occidente imperialista quiere mantener empobrecido y humillado.

Ha pasado un año, sí, y nadie puede poner en duda la validez de la justa lectura que hicimos. Desgraciadamente, todo lo que hemos tenido que conocer, vivir y sufrir a lo largo de este año se encarga de confirmar la lectura que hizo esta iniciativa popular antifascista. El capitalismo es un residuo histórico. El ahogamiento que padece este sistema que ya ha tocado techo y está basado en la opresión, los privilegios y la estratificación social es del mismo nivel de las terroríficas medidas que nos ha impuesto a los pueblos oprimidos y clases sociales explotadas y desposeídas en un año y por decreto. La excusa es ahora el Covid 19, el famoso Coronavirus. La nuestra es una iniciativa popular antifascista, no una asociación científica que analiza epidemias o la mutación de virus. Pero eso no quiere decir, dejando de lado interpretaciones concretas que sobre este tema pueda hacer cada uno de nosotros, que no tengamos capacidad para darnos cuenta de todo lo que hay tras esta jugada que gestionan los grandes grupos monopolistas que controlan el mundo y todo lo que nos está generando. No somos tontos, sabemos perfectamente que el capitalismo solo tiene un medio para gestionar la crisis a vida o muerte que padece y tratar de perpetuar el sistema: seguir manteniendo la destrucción, incrementando su velocidad. Cualquier destrucción, no les importa cual: bombardeos o despidos masivos de trabajadores. Destrucción de toda la sobreproducción que no puede venderse o acordar la de todo un país para poder especular con su reconstrucción. La aparición del Covid 19 le ha dado una nueva dimensión desconocida a esta situación y ha dejado a la vista de todos y todas el nivel de degradación y miseria del capitalismo.

Las medidas, propaganda y estado de alarma impuestas por la fuerza y por decreto por todos los gobiernos y estamentos -económicos, militares, y las ramas de la opresión que, aunque se vistan con el disfraz de la salud y los derechos humanos han adquirido una responsabilidad de primer orden- que están al servicio de los monopolistas que controlan y destruyen el mundo están destinadas a desactivar la capacidad de pensamiento de los oprimidos. Mensaje único, pensamiento único. El terror está expandido, la represión no tiene límites. No estamos tan ciegos como para no ver qué es lo que se esconde tras las palabras solidaridad, responsabilidad colectiva o conciencia social cada vez que son pronunciadas por algún portavoz autorizado del poder y los estados burgueses. El fascismo es el oxígeno de este sistema que se encuentra ahogado y en fase de descomposición sin marcha atrás. Necesitan el fascismo para seguir manteniendo la dominación y tratar de apagar y contener los levantamientos populares, rebeliones campesinas, procesos revolucionarios dirigidos por la clase obrera o las convulsiones sociopolíticas generadas por la brutalidad imperialista, la pobreza y la marginación. El fascismo del siglo XXI va a utilizar excusas como el Covid 19 para tratar de desviar la dirección del imparable enfado y la transformación. Les volvemos a decir alto y claro a los fascistas y a todos sus perros asalariados que nos van a tener enfrente y, al igual que hicieron los gudarís y milicianos de 1936, nos van a tener dispuestos a luchar, cara a cara, con todos los medios que sean necesarios.

Decimos que ha pasado un año. Y la memoria histórica antifascista viva nos va a llevar de nuevo a atravesar las calles de Bilbo, para traer al recuerdo con orgullo la pasión, valentía, firmeza y generosidad que nuestros aitites y amamas demostraron en la lucha. Sin embargo, la memoria de largo alcance no puede olvidar lo ocurrido a lo largo de este año, porque la memoria de oprimidos y explotados que nosotros y nosotras reivindicamos es parte del bloque inquebrantable formado por la misma sangre, el mismo cerebro y el mismo corazón.

Queremos traer al recuerdo a nuestros hermanos y hermanas de clase que se han visto mayormente golpeados por las situaciones generadas con la excusa de la aparición del Covid19 y la imposición de las medidas de excepción: en primer lugar, a los aittes y amamas de la clase obrera que han pasado sus últimos días en estado de abandono, en soledad o en residencias aisladas.

Queremos traer al recuerdo a todos y todas los obreros y familias que bajo el argumento de las nuevas condiciones del mercado han sido despedidos por el terrorismo burgués, se han quedado sin trabajo y con mayores dificultades o la imposibilidad de poder pagar lo más básico para poder vivir. Queremos traer al recuerdo a todos y todas los que se han quedado en la calle únicamente con lo puesto y, cómo no, un año más, a todos los que han dado su último aliento en el puesto de trabajo. Queremos traer al recuerdo a esa gran familia de la clase obrera internacional, que sigue errante por todos rincones y océanos del mundo, refugiados, migrantes, desposeídas, a todos y todas los que están tratando de huir de todos los infiernos generados por el imperialismo.

Queremos traer al recuerdo el mensaje de firmeza de nuestros hermanos y hermanas que permanecen encarcelados. Nuestra lucha en la calle debe seguir siendo el eco de su grito. Recordamos las distintas luchas y la huelga de hambre rotativa emprendida el 1 de septiembre por los presos y presas sociales en favor de unos mínimos derechos y condiciones de vida. Recordamos la dura lucha del preso político y militante revolucionario Patxi Ruiz, su huelga de hambre y sed y las movilizaciones y luchas solidarias organizadas en la calle y diversas cárceles. Tendremos muy en cuenta todo lo ocurrido durante esas largas semanas y una vez más, gracias a la dura lucha emprendida por Patxi Ruiz, hemos podido observar y comprobar dónde se sitúa cada uno en este pueblo y con quién se puede contar para reivindicar sin vergüenza la Amnistía y organizar la Lucha popular.

Recordamos todas las movilizaciones, piquetes y luchas llevadas a cabo en otoño en las huelgas del Metal. Tuvimos la oportunidad de demostrar algunos de los medios de lucha que la lucha obrera deberá de recuperar y multiplicar.

Queremos traer al recuerdo, entre otros, sin olvidar a nadie y por citar algunos ejemplos, el levantamiento popular llevado a cabo en Chile, la determinación para la lucha del movimiento de chalecos amarillos del estado francés, el mantenimiento de la Resistencia en Siria y Palestina, los caídos y caídas en las huelgas de hambre de Turquía, y a todos y todas aquellos que, sin pensárselo dos veces y con valentía, se van acercando a dar la cara y luchar a lo largo y ancho del mundo ante todas las apariciones de los fascistas. Un recuerdo a indígenas, mineros, campesinas y el conjunto del pueblo de Bolivia, que, agitando con orgullo la Whipala y saliendo con todo a la calle se niega a aceptar un golpe de estado fascista que los quiere devolver a la marginación y pobreza impuestas durante largas décadas en el país. Queremos dedicarle una mención especial a lo que está ocurriendo en el interior de las fronteras del principal baluarte del imperialismo. En algunos estados de los Estados Unidos de América se están aproximando a la guerra civil y la raíz del problema, más allá de la actitud racista mantenida desde siempre por la policía, la debemos encontrar en la Lucha de Clases. Si queremos abrir las puertas del mundo nuevo que llevamos en nuestros corazones, estamos obligados a destruir en su totalidad el viejo mundo, ya que carece de vacunas o agua bendita que cure todas las graves enfermedades que ha ido

generando, empezando por la pesadilla llamada american dream.

El 12 de octubre, a las 12, segundo Alarde Antifaxista en Bilbo. Orígenes políticos y sensibilidades ideológicas diferentes unidas. Aparición unificada de las diversas familias que han destacado en la tradición antifascista de Euskal Herria. Una oportunidad para ofrecer desde la unidad y por medio de la memoria un marco al enfado diario y las reivindicaciones históricas del Pueblo Trabajador. Una iniciativa en la que todos y todas podemos participar a gusto y podemos demostrar que en la lucha contra el capitalismo y el fascismo que genera nos necesitamos las unas a las otras. Un instrumento para la movilización de todos y todas los que sabemos que con elecciones, la aceptación de leyes fascistas y el cumplimiento de la reglas de juego dictadas por la burguesía no vamos a llegar a ninguna parte.

**Únete a un batallón o crea uno nuevo con tu gente.**

**Únete al Alarde, organízate y lucha.**

**Komunikatua:** Urtebete joan egin zaigu. Konturatu gabe, ziztu bizian. Urtebete burutazio soil bat izan zitekeen amets bat irmotasunez, gogoz eta ilusioz Bilboko kaleetan gauzatzeari ekin genionetik. Urtebete ametsari forma eman eta Alarde Antifaxista herri ekimena sortu, zabaldu, egituratu eta burura eramán genuenetik eta egindako lanaz horren harro eta pozarren sentitu ginenetik, gure apaltasunetik, egunerokotasun grisaren gainean etorkizunez eta itxaropenez beteriko argi izpi berri bat islatzen lortu genuelako.

Urtete joan egin zaigu. Iazko Alardean, batasuna eta ekimen zehatzerako borondatea eta gogoa agertzearekin batera, ekimen antifaxista honek plazaratzen duen irakurketa eta bere izaeraren ezaugarriak definitu genituen. Klase Borroka ardatz duen Borroka Antifaxistaren baitan kokatzen da gure ekimena eta horrexegatik salatzen ditugu kapitalismoak eragindako askotariko zapalkuntzak, sarraskiak eta suntsiketa. Oroimen historiko bizitik abiatzen den ekimena da gurea, gure aurreneko borrokalari antifaxista guztiek utzitako ondarea aldarrikatu eta kaleratzearekin batera, eurek abiarazitako borrokaren zentzua, helburuak eta duintasuna erabateko gaurkotasuna dutela agerrarazteko beharra sentitzen dugulako. Batasuna bide eta xede duen ekimena, jakin badakigulako borrokarako borondatea dugun guztion ardura dela antifaxismoa indartzen jarraitzea, faxistei aurre egiten eta egurra ematen jarraitzea, borroka honetan bat garelá barneratzea.

Urtete joan egin zaigu. Eta ez edonolakoa. Iaz burutu genuen lehenbiziko Alarde Antifaxistan adierazi genuen guztia berrestearekin batera, urte honek emandakoari errepaso laburra ematea egokitzen zaigu oraingoan. Basakeri inperialista salatzen genuen eta beste urtebetez mantendu baino, areagotu egin da denon bistara. Estatu burgesek askatasun eta eskubide politikoen eremuan ezarritako muga berriak salatzen genituen eta urtebete beranduago, gure eskubide eta askatasunak non geratu ote diren galdetzen diogu gure buruari. Lan baldintzen eta esplotazioaren etengabeko eta mugarik gabeko okertzea salatzen genuen eta azken urte honetan zer-nolako atzeraldia pairatzen ari garen dakigu gure bizitza aurrera ateratzeko soldatapeko esklabutzaaren arauen eta lan-merkatu kapitalistaren terrorismoaren menpe gauden langile guztiok. Gure herriak pairatzen duen zapalkuntza nazionala, preso politiko eta sozialen egoera eta bizi baldintzak, gurea bezalako langileriaren parte diren eta Mendebalde inperialistak txirotuta eta umiliatuta mantendu

nahi dituen munduko txoko guztietako migranteen egoera anker eta lotsagarria salatu genituen ere, beste askorekin batera.

Urtebete joan egin zaigu, bai, eta egiten genuen irakurketaren zuzentasuna eta baliagarritasuna zalantzan jartzerik ez dago. Zoritzarrez, urtebete honetan zehar ezagutu, bizi eta pairatu behar izan dugun guztia arduratzen da herri ekimen antifaxista honek egiten zuen irakurketa berrestez. Zabor historikoa da kapitalismoa. Goia jo duen eta menperakuntzan, zapalkuntzan, pribilegioetan eta gizarte mailakatzean oinarritzen den sistema honek bizi duen itolarria, zapaldutako herrioi eta desjabetutako klase sozial esplotatuoi urtebetean eta dekretuz inposatu dizkigun neurri ikaragarrien tamainakoa da. Covid-19a, Coronavirus ospetsua da aitzakia oraingoan. Langileok osatzen dugun herri ekimen antifaxista bat da gurea, ez epidemiak edo birusen mutazioak aztertzen dituen zientzia elkargo bat. Baina horrek ez du esan nahi, gaiaren inguruko interpretazioak egiteko orduan gutako bakoitzak izan ditzakeen zehaztasunak alboratuz, mundua menperatzen duten talde monopolista handienek kudeatzen duten jokaldi honen atzean dagoen guztiaz eta erakarri digunaz ohartzeko adimen nahikorik ez dugunik. Ez gara ergelak, eta ederki dakigu kapitalismoak nozitzen duen hil ala biziko krisialdiaren kudeaketa eta sistemaren behin betikotzea bermatzeko bidea bakarra dela: suntsiketa mantentzen jarraitzea, bere abiadura igoaraziz. Edozein suntsiketa, zeinena berdin die: bonbardaketak edo langileak masiboki kaleratzea. Saldu ezin daitekeen gainproduktio guztia suntsitzea edo herrialde oso batena adostea bere berreraikuntzarekin espekulatzeko. Covid19aren agerpenak egoera honi guztiari dimentsio ezezagun berri bat eman dio eta kapitalismoaren degradazio eta miseria maila denon bistara utzi ditu. Mundua kontrolatzen eta suntsitzen duten monopolisten esanetara dauden gobernuek eta estamentu guztiek -ekonomikoak, militarrik eta, osasunaren eta giza eskubideen mozorroa jantzi arren zapalkuntzaren lehen mailako ardurako adar bilakatu direnak- indarrez eta dekretuz inposatutako neurriak, propaganda eta alarma egoera zapalduon pentsatzeko ahalmena indargabetzeko helburua daukate. Mezu bakarra, pentsamendu bakarra. Izua hedatuta dago, errepresioak mugarik ez du. Botere eta estatu burgesek baimendutako bozemaleen ahotan elkartasuna, ardura kolektiboa edota kontzientzia soziala hitzen atzean zer izkutatzen den ez ikusteko bezainitsu ez gaude. Faxismoa da atzerabuelarik gabeko deskonposizio fasean arnasestuka dagoen sistema honen oxigenoa. Menperakuntza mantentzen jarraitzeko eta munduan zehar gertatzen ari diren eta etortzeaz dauden herri altxamenduak, nekazarien matxinadak, langileriak gidatutako prozesu iraultzaileak edota basakeri inperialistak, pobrezia eta bazterketak eragindako asaldura soziopolitikoak itzaltzen eta kontrolatzen saiatzeko behar dute faxismoa. Eta XXI. mendeko faxismoak Covid19a bezalako aitzakiak erabiliko ditu, geldiezina den haserrearen eta aldaketaren norabidea desbideratu aldera. Berriro ere argi eta ozen esaten diegu faxistei eta bere soldatapeko txakur guztiei aurrean izango gaituztela eta 1936ko gudari eta milizianoak bezala, borrokarako prest, aurrez aurre, izango gaituztela, beharrezkoak izango diren bitarteko guztiekin.

Urtebete joan zaigula diogu. Eta oroimen historiko antifaxista biziak eramango gaitu berriro ere Bilboko kaleak zeharkatzera, gure aiton-amonen erakutsitako borrokarako grina, ausardia, irmotasuna eta eskuzabaltasuna harrotasunez gogora ekartzera. Alta, epe luzeko oroimenak ezin du urtebetean gertatutako guztia ahaztu, aldarrikatzen dugun zapalduon eta esplotatuon memoria bihotz, burmuin eta odol bereko bloke hautsiezina delako.

Gogora ekarri nahi ditugu Covid19aren agerpenetik eta salbuespenezko neurrien ezarpenetik, hauek aitzaki hartuta sortutako egoerek gehien kolpatutako gure klaseko anai-arrebak: lehenik eta behin, bizitzaren azkenengo egunak abandonu egoeran, bakardadean edo isolatutako erresidentzietan eman dituzten eta ematen dituzten langileriaren aiton-amonak. Gogora ekarri nahi ditugu merkatuaren baldintza berriak argudiatuta terrorismo burgesak kaleratu dituen eta lanik gabe eta bizi ahal izateko oinarritzkoena dena ordaintzeko zailtasun gehiagorekin edo ordaindu ezinik geratu diren langile eta familia guztiak. Gogora ekarri nahi ditugu kalean, soinean daramatenarekin, geratu diren guztiak eta nola ez, beste urte batez, bere bizitzaren azken arnasa lanpostuan eman duten guztiak. Gogora ekarri nahi dugu munduko bazterretan eta itsasoetan noraezean dabiltzanak, munduko langileriaren familia handi hori, errefuxiatuak, migranteak, desjabetuak, inperialismoak sorraratzen dituen infernu guztietatik ihesi doazen guztiak.

Gogora ekarri nahi dugu, espetxe barruan jarraitzen duten gure anai-arreben tinkotasun mezua. Gure kaleko borroka bere garrasiaren oihartzuna izaten mantendu behar da. Gogoan ditugu urte honetan zehar gutxieneko eskubideak aldarrikatuz preso sozialek buruturiko txandakako borrokaldi ezberdinak eta irailaren 1ean abiatutako txandakako gose greba. Gogoan dugu Patxi Ruiz preso politiko eta militante iraultzailearen muturreko borrokaldia, egarri eta gose greba eta berarekin elkartasunean kalean eta espetxe ezberdinetan antolatutako mobilizazio eta borrokak. Oso gogoan izango dugu aste luze horietan zehar gertatutako guztia, eta berriz ere, kasu honetan Patxik abiatutako borrokaldi latzaren ondorioz, ikusi eta ikasi izan dugu non kokatzen den bakoitza herri honetan eta norekin konta daitekeen Amnistia lotsarik gabe aldarrikatzeko eta herri borroka antolatzeko.

Gogoan ditugu iazko udazken osoan zehar Metaleko greben harira eginiko mobilizazio, pikete eta borrokaldiak. Langile borrokak berreskuratu eta biderkatu beharko dituen bitarteko batzuk agerrarazteko aukera izan genuen bertan.

Gogora ekarri nahi dugu, besteak beste, inor ahaztu barik eta adibide batzuk eskeintzeko, azken urte honetan gauzatutako Txileko herri altxamendua, estatu frantseseko txaleko horien mugimenduaren borrokarako erabakimena, Palestina eta Siriako erresistentziaren mantentzea, Turkian burututako gose grebetan eroritakoak, mundu osoan zehar faxisten agerpen guztien aurrean, bitan pentsatu gabe eta ausardiaz aurpegia ematera eta borroka egitera gerturatzen diren guztiak, geroz eta kide gehiago garelako. Gogora ekarri nahi ditugu Boliviako indigenak, meatzariak, nekazariak eta Whipala harrotasunez haizeratuz herrialdean hamarkada luzeetan zehar ezarritako bazterketara eta pobreziara itzularazi nahi dituen estatu kolpe faxistari eskura daukan guztiarekin aurre egiten dion Boliviako herria. Aipamen berezia eskeini nahi diogu inperialismoaren erakusle nagusiaren mugen barna gertatzen ari denari. Amerikako Estatu Batuen estatu batzuetan gerra zibilaren mugara hurbiltzen hasiak dira eta arazoaren muina, poliziaren betiko jarrera arrazistatik harago, Klase Borrokan aurkitu behar dugu. Gure bihotzetan daramagun mundu berriaren ateak ireki nahi baditugu, berak eragindako gaixotasun larri guztientzako txertorik edo ur bedeinkaturik ez daukan mundu zaharra bere osotasunean suntsitu beharko dugu, american dream delako amesgaiztotik hasita.

Urriak 12, 12etan, bigarren Alarde Antifaxista Bilbon. Jatorri politiko eta sentsibiltate ideologiko ezberdinak batera. Euskal Herriko tradizio antifaxistan nabarmendu diren familia

ezberdinen agerpen bateratua. Herri langilearen aldarrikapen historikoei eta egungo haserreari modu bateratuan eta oroimenaren bidetik marko bat eskeintzeko aukera. Denok gustura parte hartzeko eta kapitalismoaren eta berak eragindako faxismoaren aurkako borrokan elkarren beharra dugula adierazteko ekimena. Hauteskondeekin, lege faxisten onarpenarekin eta burgesiak ezarritako joko-arauen betetzearekin inora ez goazela dakigun guztiok mobilizatzeko bitartekoa.

**Bat egin batailoiekin edo sor ezazu bat zure jendearekin.**

**Zatoz Alardera, antolatu eta borrokatu.**

**Te necesitamos**

<https://www.ecuadoretxea.org/batallones-recorren-por-segundo-ano-las-calles-de-bilbao-alarde-antifaxista-2020/>

---

<https://eh.lahaine.org/alarde-antifaxista-2020-batallones-recorren>